

MODULUA: KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

IKASLEAREN GIDA. LEHEN HEZKUNTZA- 2021-2022

Zentroa: Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Moduluaren izena: *Komunikazio Lanabesak*

Ikasturtea: 2.a **Lauhilabetekoa:** 1.a

Moduluko irakasleak:

Euskara: LEHEN HEZKUNTZA

Informazio eta Komunikazio Teknologiak Lehen Hezkuntzan	Rakel Gamito	rakel.gamito@ehu.eus	PDI01 bulegoa
Komunikazio Gaitasunaren Garapena II	Gema Lasarte	gema.lasarte@ehu.eus	2.9 bulegoa
Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza	Pablo Lekue	pablo.lekue@ehu.eus	PDI03 bulegoa
Musika Lehen Hezkuntzan	Jose Antonio Ordoñana	jose.ordonana@ehu.eus	2.8. bulegoa

GARRANTZIZKO OHARRA: irakasleen posta elektronikoak ez dira **INOLA ERE** erabili behar tutoretza birtual bat lortzeko. Horretarako irakasleen tutoretza orduak jarri dira (Zentroko webgunean kontsulta ditzakezue).

1. MODULUAREN GAITASUNAK

M1. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.

M2. Esperientzia eremu desberdinen printzipioak ezagutzea, bere baliabide didaktiko zehatzak ezarriz irakaslanari hurreratzean.

M3. IKTak erabiltzea, norberak ikasteko eta lankidetzan aritzeko, ezagutza eraldatzeko, era guztietako baliabide grafikoak eta multimediak erabiliz.

M4. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen komunikazio kompetentziak garatzea, Europako erreferentzia markoko B2 maila lortu arte.

2. DIZIPLINARTEKO LANAREN GAIA: TELEBISTAREN ERAGINA ESKOLAN

Diziplinarteko lan honen bidez nagusiki ikasleek ikuspegi zabal bat lortuko dute telebistak hezkuntzan duen eraginaz lehen hezkuntzari dagokionez. Lanaren aberastasuna, praktikarekin hartu-emana izateko aukerak ematen du, eta hala, prestaketa eta hausnarketa teorikoa osatu egingo da praktikan agertzen diren behatze eta aurkikuntzekin (egin beharreko practicum egonaldiaren bidez).

Proposatutako lanerako dokumentuek agertzen dutenez, (ikus erreferentziak), benetan kezkatzekoa da zenbat ordu pasatzen duten hurrek telebistaren aurrean, urtean zehar pasatzen dituzten orduak eskolan pasatakoak baino gehiago izaten dira; hori kezagarria izanik, beste eragile batzuk ere badira, telebistako eduki askok duten heziketa-xede eskasa, eta umeei benetakoa eta asmatua bereizteko izan dezaketen zailtasuna. Zailtasun hori are gehiago larri daiteke umeei telebista inor ondoan ez dutela ikusten badute, hau da, guraso edo aitona-amonak ez badaude, telebistaren aurrean haurraren jarrera aktibo bat eragiteko, bide batez lagunduz pantailan agertzen denaren eta eguneroko jardunean berak bizi duenaren artean bereizten.

Telebistak hezkuntzan duen eraginaz ikuspegi zabal bat eduki nahiak, nahitaez garrantzitsuak lehen hausnarketa teoriko batera, bertan ezinbestekoa da haurrentzako telebistaren azterketa egitea, hurrek telebistaren aurrean behar duten babesa arautzen duten legeak eta arauak bereziki kontuan hartuz. Hausnarketa horrek bide eman behar du errealitateari gerturatzeko, eta hala zuzeneko murgiltzea egingo da ikastetxeko egonaldian. Errealitateari hurreratzeak duen xedea egunero hurrei eskaintzen zaizkien telebista eduki motak ezagutzea da, eta haien azterketa zehatzago bat egitea, irizpide jakin batzuen arabera: kulturaren irudia, generoaren tratamendua, sexualitatea, bortizkeria..., arreta berezia emanez horiek hurren jokabidean izan dezaketen eraginari.

Ikastetxeko egonaldian behatze aktiboa egingo da, datuak jasotzea eta aztertzea: alde batetik, ikastetxeko TB eta bideo baliabideak ezagutzea, eta haien erabiltzeko era; beste alde batetik, egonaldian hurrek telebista ikusteko dituzten ohiturak ezagutuko dira, eta ohitura horiek haiengan duten eragina ikusten ote dugun. Praktikaldian, lanaren gaia bide ona izan daiteke hurrekin eta huren inguruarekin aritzeko, bai elkarrizketa informalekin bidez, bai aurrez tutorearekin hitzartutako saioen baten bidez.

Praktikaldiko egonaldian jaso eta aztertutako datuek erronka profesionalaren aurrean jarriko du ikaslea, eta horixe nahi da, hain zuzen, diziplinarteko lanaren bidez: Behatze aktiboaren eta beste bide batzuen bidez lortutako datuen arabera, ikasleek gomendio triptiko bat egin behar dute telebista kontsumo arduratsuz eta telebista ohitura osasungarriaz. Triptikoa

praktikaldietako zentroen Guraso Elkarteetarako izango da eta elkarte horietan aurkeztu beharko da; triptikoa prestatu eta aurkeztean, gauza orokorretara mugatzeaz haratago, gomendioak eskaintzen saiatu behar da, praktiketan aztertutako eskola-giro jakinen arabera.

3. AURREIKUSITAKO LAN FASEAK

Diziplinarteko lana ondoren esango ditugun **hiru fasetan** egingo da

1.LAN FASEA: PRAKTIKALDIKO EGONALDIAREN

BAINO LEHEN:

ASTEAK: 1-3

Lanaren lehen fasean, Practicuma egin aurretik egiten den horretan, lana gauzatzeko esparru teorikoa ezarri behar da, eta erraztu egin behar da praktikaldiko esperientziaren hezkuntza girora hurreratzea; lehenbizi, beharrezkoa da haurrentzako telebistaren esparrua ezagutzea, lege xedapenek edo arauak haurren eskubideei eta haiek telebistatik babesteko eskubideari buruz diotenarekin batera. Horretarako, ikasleek legeak aztertu beharko dituzte (hurrengo orrialdean ematen da ikuspegi labur bat adibide gisa) gai honi buruz, Konstituzioak esaten duenarekin hasi eta pixkanaka lege organiko, estatutu, zuzentarau, hitzarmen eta abarrak aztertuz.

Legeak berrikusteaz gain, lehen fase honek balio behar du hezkuntza errealitatera hurreratzeko, 4. eta 9. asteen arteko praktikaldirako; horretarako, honako oinarri dokumentuak proposatzen dira¹:

- o Dokumentu hori honako hauek egin dute: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskaltel Fundazioa eta EHIGE – Euskal Eskola Publikoko Guraso Elkarten Konfederazioa.
- o Telebista, familia eta imitatzea.

Dokumentu hauek oinarri izan daitezke hausnarketa teorikoa egiteko, hausnarketa hori moduluko ikasgaietan egin behar da, eta bertatik jar daitezkeen galdera edo gida puntuen laguntzaz. Ondorengo gida puntu hauek adibidez daude, eta moduluko ikasgai bakoitzak jar ditzake ondoen iruditzen zaizkionak.

- o Telebista, inguru kulturalaren parte.
- o Zer esan nahi dugu telebista hezitzailea diogunean?
- o Programa hezitzaileak / programa ez hezitzaileak.
- o Imitazioa eta honen garrantzia nortasuna garatzerakoan.
- o Heziketarako edukien azterketa eta balioespena telebistan: (telebista kateren baten haurrentzako programazioaren azterketa egin daiteke).
- o Kulturaren irudia.
- o Genero tratamendua.
- o Sexu edukia.
- o Bortizkeria edukia.

1

- o Haurren jokabidean izan dezakeen ondorioa.

LANAREN 2. FASEA: PRACTICUM EGONALDIAN **(ASTEAK: 4 - 9)**

Practicumaren egonaldiak bide ematen du esparru teorikoan jarri diren hainbat gauza errealitatearekin alderatzeko; praktikaldiko esperientzia, ahaztu barik lehen harreman bat dela, xede nagusia du behatze aktiboa egitea, eta aukera ematen du proposatutako gaiaren inguruan zenbait intereseko datu jaso eta aztertzeke. Ikastetxeetan dauden TB eta bideo baliabideen eta hauen erabileraren berri zehatza eskuratzeaz gain, neska-mutilekin harreman zuzena izateak, eta haien familiekiko balizko harremanak, bide emango du haien telebista ohiturak aztertzeke, eta behatzeko ohitura horiek haiengan eraginik baduten. Praktikaldian, lanaren gaia bide ona izan daiteke hurrekin eta hauen inguruarekin aritzeko, bai elkarrizketa informalean bidez, bai aurrez tutorearekin hitzartutako saioen baten bidez.

Honako alderdi hauek adibide dira soilik, kontuan har daitezke practicumeko egonaldian baliatzeko:

- o Ikastetxean telebista nola erabiltzen den aztertzea.
 - o Ikastetxeak dituen IKTak eta horien erabilera.
 - o Telebistarekin lotutako toki eta materialak .
 - o Materialak eta telebista erabilera ingurunearen ezagutzarako.
 - o Nola erabili asmo dute telebista zikloetako taldeetan?
- Datuak biltzea oinarri dokumentuetan jarritako gaiei buruz:
- o Batez beste zenbat ordu ematen dute haurrek etxean telebista ikusten?
 - o Zenbatek daukate telebista gelan bertan?
 - o Gurasoen esku-hartzea telebista ikusteko orduan.
 - o Zein telebista eduki mota bultzatu nahi dute gurasoek? Zein eduki baztertzen dituzte sistematikoki beren seme-alabengandik?
 - o Zein telebista eduki dira kontsumitu ohi dituztenak?
 - o Practicumean egin dugun egonaldian zein jarrera ikusi ahal izan ditugu haurrengan?
 - o Telebista edukien eragina imitazioan (jantziak, osagarriak...).
 - o Telebistako edukiek haurren hizkeran duten eragina.

Musika arloarekin erlazionatzen diren gaiei buruzko datu bilketa:

- Badago umeez, telebistan, sarritan ikusten duten musika programaren bat edota beste programa bat non musikak agerpen nabaria baitauka?
- Badago telebistako haurrentzako programazioan, gurasoak sustatzen saiatzen diren musika programaren bat edota beste programa bat non musikak agerpen nabaria baitauka?
- Badago telebistako haurrentzako programazioan, ikastetxeko irakasleek sustatzen duten musika programaren bat edota beste programa bat non musikak agerpen nabaria baitauka?
- Telebistako edukien edo arte-musika programen eragina ikasgelan: janzkera, hizkera, gustuak eta lehentasun musikalak, eta abar.

LANAREN 3. FASEA: GURASO ELKARTEARI GOMENDIOAK **EMATEKO TRIPTIKOAK PRESTATU ETA ERAKUSTEA** **(ASTEAK: 10 - 15)**

Klaseko azken bost aste hauek praktikaldietako ikastetxeen Guraso Elkarteei gomendioak egiteko triptikoa egiteko erabiliko dira nagusiki; lehen esan dugunez, egonaldian egindako behaketa, eta jasotako datuen azterketa baliatu behar da erreferentzia praktiketako ikastetxeetan girotuz. Triptiko formatuak ez du alderdi asko erakusteko modurik ematen, eta horrexegatik, hain zuzen, balioko du ikasleen hausnarketa eta sintesirako ahalmena neurtzeko (idatzizko komunikazio konpetentzia), eta komunikazio konpetentzia grafikoa eta bisuala; garrantzizkoa da kontuan hartzea, egoerak laguntzen duen neurrian, triptikoak praktiketako zentroetara bidaliko direla.

Baina, produktua emateaz gain, ikasleek ahozko azalpen bat eman beharko dute Guraso Elkartearen aurrean; azalpen horrek ahozko konpetentzia neurtzeko eta diskurtsoaren egokitasuna hartzailearen arabera neurtzeko balioko du.

Hirugarren fase hau diziplinarteko lan hau egitean ikasleek aurrean duten erronka profesionala burutzen duena da.

4. LANERAKO METODOLOGIA

4.1. Funtzionamendu praktikoa

Moduluko diziplinarteko lana 4 ikasleko taldeetan egingo da. Lan taldeen eratzea ikasleek adostuko dute; hala, practicumak lanean duen garrantziak bi aukera dakartza taldeak eratzeko:

- o **Praktika zentro berean dauden ikasleek eratutako taldea:** Lana egitea erraz dezake, ikastetxe berean behaketa egin eta datuak jaso eta aztertzeak ikuspegi bateratuagoa emango baitu, eta hala, gomendioen triptikoa inguru jakin baterakoa izango da.
- o **Zentro desberdinetan dauden ikasleek eratutako taldea:** Kasu honetan, ikuspegi anitzagoa aurki dezakegu, baina leku bereizietan egon daitezkeen ingurunetan behaketa eta datu biltze eta azterketa egiteak haien artean alderatzea egiteko bidea emango du.

Kasuistika horiez gain, lan taldeak eratzeko orduan, ikasleei gomendatzen zaie kontuan izan dezaten lana ongi egiten lagun dezaketen zenbait irizpide: Alde batetik, eraginkortasun maila egoki bat lortzeko aurreikuspena, eta horri lagunduko dio aurretik harreman pertsonala eta lanekoa egoteak, eta baita taldeko kideak elkarrengandik gertu bizitzeak ere.

Taldean osaketa **praktiketara joan baino lehen** adostu behar dute ikasleek eta irakasleetako batek jasoko du horren berri, honek ondoren taldeen zerrenda pasako die beste irakasleei (lan taldeak, jakina, berbera izan behar du moduluko ikasgai guztietan).

4.1. Diziplinarreko lanaren garapen metodologikoa

Lanaren garapen metodologikoz mintzatzean, derrigor aipatu behar dugu horretarako hautaturiko tresna, MINDOMO izenekoa. Mapa kontzeptualak egiteko tresna oso bat da, eta era guztietako edukiak sar daitezke bertan, testuak, hiperestekak, bideoak, musika edo irudiak. Hala, bada, tresna honen bidez hasieratik bistaratu daiteke lanaren bilakaera eta ikasleak egokitasunez antolatu behar ditu, jaso ahala, datuak; haren faseetan zehar, ikasleak bere mindomoa eratzen joan behar du, edukia sartuz eta antolamendua ahalik eta argiena izan dadin saiaturaz, xede izanik, mindomora edozein unetan sartzen denak (kasu honetan moduluko irakasleak) erraz ikusi ahal izatea lanaren bilakaera, edo zeharka hurreratu ahal izatea ikasleek praktikaldian izan dituzten bizipen edo esperientzietara (bideo txikiak, grabazioak, eta abar.²).

Modulu-lanaren 3. faseari dagokionez, mindomoan honakoak sartu beharko dira: lege-markoa, marko teorikoa eta praktika-zentroetako IGEetara igorriko diren gomendioen triptikoa.

Azken batean, mindomoak garrantzi handia hartzen du lanaren bilakaeran, tresna oinarritzko horren bidez, egin ahal izango da, azkenean, gomendioen triptikoa eta ahozko azalpena prestatzea.

5. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA

5.1. Ebaluazioaren alderdi orokorrak

Ebaluatzeko bi modalitate egongo dira, bata aurrez aurreko ikasleentzat eta bestea aurrez-aurreko ez diren ikasleentzat. **Aurrez-aurreko ikaslea da gutxienez klaseen % 75era doana, haiek egoki aprobetxatuz eta Akordio Dokumentuan (Eskolako web orrian) ezarritako arauak betez; aurrez-aurrekoa ez den ikasletzat hartuko da gutxienezko horretara ailegatzen ez dena.**

Aurrez-aurreko ikasleentzako ebaluazioa

- Aurrez-aurreko ikasleak erreferentziatzen hartuko du ikaslearen gida honetan zehaztutako **lanaren kronograma**.

- Modulu lana egiteak **mindomoa eratzea** eskatzen du eta **Guraso Elkarteei zuzendutako gomendioen triptikoa ematea eta azaltzea**. Lana 4 ikasleko taldeetan egingo da.
- Modulu-lanaren kalifikazioa berbera izango da taldeko ikasle guztientzat.
- **Ezohiko deialdia**
- Modulu-lanaren kalifikazioa **ikasgaiaren kalifikazioaren bi puntu** izango da. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostuko dute eta diziplina bakoitzaren ebaluazioari gehituko zaio. Lana gaindituta baldin badago eta ikasgaia gainditu gabe, LANAREN NOTA GORDE EGINGO DA EZOHIKO DEIALDIRA ARTE.

Aurrez-aurreko ikasleek lana gainditzen ez badute:

Hurrengo deialdian gainditu beharko dute hura hobetuz (lana berriro zuzenduko da taldean).

Aurrez-aurreko ez diren ikasleentzako ebaluazioa

- Aurrez-aurreko ez den ikasleak ebaluatzeko ikasgai bakoitzeko **proba espezifikoak** erabiliko dira.
- Ikasgai bakoitzeko proba batzuk **moduluko lanari** buruzkoak izango dira.
- Modulu lanari dagozkion probak **2 puntu** balioko ditu.

Ebaluazioaren errubrika

Jarraian aurkezten den errubrika izango da moduluko irakasleek ikasleak egindako diziplinarteko lana ebaluatzeko izango duten tresna; oso errubrika xehatua da eta erantzun egin nahi dio moduluaren konpetentziei, lehen aipaturikoei, eta haiei buruz egindako lanaren bilakaerari.

Ebaluatzeko irizpideak		Nabarmen hobetu behar du (0,5)	Gaindituta (1)	Oso ongi (1,5)	Bikain (2)
1. fasea Testuingurua	Ikus-entzunezkoei buruzko legeria	Aipatzen du indarrean dagoen araudiren bat.	Aipatzen du indarrean dagoen araudia.	Adierazten du indarrean dagoen legeria eta arau/lege bakoitzaren helburua esplikatzen du.	Indarrean dagoen legeria adierazten du, arau/lege bakoitzaren helburua esplikatzen du eta horiek zenbateraino betetzen diren esplikatzen du..
	TB kontsumoa & Eskola	Ez du erakusten azterketa ziurtaturik.	Eskola adineko hurrek duten telebista kontsumoari buruzko zenbait azterlan adierazten ditu.	Eskola adineko hurren telebista kontsumoari buruzko zenbait azterlan adierazten ditu eta eskolaumeen programarik gustukoenen ezaugarriak erakusten ditu.	Eskola adineko hurrek duten telebista kontsumoari buruzko zenbait azterlan adierazten ditu, eskolaumeen programarik gustukoenen ezaugarriak erakusten ditu, eta gelan duen eragina aztertzen du.

Ebaluatzeko irizpideak		Nabarmen hobetu behar du (0,5)	Gaindituta (1)	Oso ongi (1,5)	Bikain (2)
2 ^a fase Hezkuntza errealitatearen analisia (Practicum)	Musika eta TB	No indica ningún tipo de programa musical, u otro programa donde la música tiene una presencia relevante, dentro de la programación infantil de TV	Indica algún programa musical, u otro programa donde la música tiene una presencia relevante, dentro de la programación infantil de TV.	Indica y analiza algún programa musical, u otro donde la música tiene una presencia relevante, dentro de la programación infantil de TV.	Analiza varios programas musicales, u otros donde la música tiene una presencia relevante, dentro de la programación infantil de TV, así como su repercusión o incidencia en el aula.
	Hezkuntza errealitatearekin duen harremana eta hari buruzko hausnarketa (mindomoko edukiak egituratzea eta egokitzea)	Mindomoaren lanketa eskasa; informazio ez osoa, gaizki antolatua eta guztiz testuingururik gabea, gabezia nabarmenak ditu behatze teknikan, datu bilketan gelako eta inguruko errealitatea aztertu eta baloratzen.	Mindomoak erakusten duenez doi egin dira lanaren faseetako oinarrizko lanak. Testuingurutze oinarrizkoa, balekoa da behatze teknika, datu bilketa, gelako eta inguruko errealitatearen azterketa eta balorazioa.	Mindomoa ongi egituratuta dago; informazioak ikuspegi osoa ematen du lanaren garapen faseez. Edukien egokitzapenak erakusten du behatze teknikak onak izan direla, datuak jasotzea, gelako eta inguruko errealitatea aztertu eta baloratzea.	Mindomoak edukien egituratze eta egokitze maila handia erakusten du, eta testuingurutzeak erakusten du bikain erabili direla behaketa teknikak, datu bilketa, gelako eta inguruko errealitatea aztertu eta baloratzea.

Ebaluatzeko irizpideak		Nabarmen hobetu behar du (0,5)	Gaundituta (1)	Oso ongi (1,5)	Bikain (2)
3. fasea (Komunikazio Gaitasuna)	Hizkuntza konpetentzia	Oinarrizko baliabideak dauzka eta hizkuntza egiturak nahiko mugatuak ditu (lexikoa, gramatika, semantika, fonologia, ortografia, ortoepika).	Nahiko osagai linguistiko ditu moldatzeko eta nahiko hiztegi badu adierazteko, zalantza batzuk eta zeharbide batzuk izan arren.	Formulario egokia hautatzen du hizkuntza osagai askoren artetik, argi adierazteko, esan nahi duena mugatu beharrik gabe.	Ondo baliatzen du osagai linguistikoen aukera konplexuaz duen jabetza zabal fidagarria, pentsamenduak zehaztasunez formulatzeko, enfasia jartzeko, bereizteko eta anbiguotasunak baztertzeko. Ez du esan nahi duena mugatzen dion oztoporik.
	Konpetentzia soziolinguistikoa	Erregistro desegokia erabiltzea, hartzailearen ezaugarriari ez dagokiena.	Jabetzen da hartzailearen beharrez eta erregistroa egokitzen du egoerara, formulaziorako akats garrantzitsurik gabe.	Irrotasunez, argi eta adeitsuki mintzatzen da, erregistro formal edo informalean, egoeraren eta hartzailearen arabera.	Ondo jabetzen da hizkuntzaren erabilerak duen izaera soziolinguistikoaz eta soziokulturalaz, eta hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzen du.
	Diskurtsorako konpetentzia	Zailtasunak ditu mezu argiak, egituratuak modu errazean igortzeko.	Adierazi nahi duen ideia nagusia modu erraz praktikoan ematen du dezenteko erraztasunez.	Idea edo arazo baten alderdi nagusiak arrazoizko zehaztasunez ematen ditu, alderdi nagusiei buruzko ikuspuntuak zabalduz eta oinarrituz, xehetasun eta adibide egokien bidez.	Diskurtso argi, jario oneko, ongi egituratua du, eta erakusten du egoki erabiltzen dituela antolamendu irizpideak, lokailuak eta kohesiorako tresnak. Informazio xehea eta fidagarria ematen du.
	Irakaslearen ahozko diskurtsoaren azterketa eta ekoizpena	Ez ditu ezagutzen irakaslearen ahozko diskurtsoaren ezaugarriak, eta ez ditu erabiltzen haren irizpideak ez haren ekoizpen estrategiak.	Ezagutzen ditu irakaslearen ahozko diskurtsoaren ezaugarriak, baina ez ditu sistematikoki erabiltzen ez haren azterketa irizpideak ez haren ekoizpen estrategiak.	Ondo ezagutzen ditu irakaslearen ahozko diskurtsoaren ezaugarriak, eta zuzen erabiltzen ditu haren irizpideak eta haren ekoizpen estrategiak.	Menderatzen ditu irakaslearen ahozko diskurtsoaren ezaugarriak, eta baliabide anitzen bidez erabiltzen ditu haren irizpideak eta haren ekoizpen estrategiak.

Ebaluatzeko irizpideak	Nabarmen hobetu behar du (0,5)	Gaindituta (1)	Oso ongi (1,5)	Bikain (2)	
3. fasea (Arte eta Ikus-Kultura)	Edukiak modu hierarkizatu eta ulergarrian antolatzen ditu informazioaren arabera	Informazioa ez da osoa edo akastuna da. Konposizioa anabasa da edo hutsean-betean egindakoa.	Informazioa ordenarik gabe dago edo errepikatuta. Ez da ikusten konposiziorako irizpide jakinik.	Informazio guztia azaltzen da errepikapenik gabe, baina konposizioa nahasia da eta antolamendurik gabea.	Informazioa modu ulergarrian sekuentziatuta eta antolatuta dago. Konposizioa erakargarria eta eraginkorra da.
	Modu osagarrian konbinatzen ditu, errepikatu gabe, informazio grafikoa eta idatzizko informazioa	Informazio grafikoa eta idatzizko informazioa errepikatuta daude, kontzeptu berdinak emanez edo harremanik batere gabe.	Informazio grafikoa eta idatzizko informazioa antzeko gauzez ari dira. Bada osagarritasun zerbeit.	Bi informazio motek, idatzizkoak eta grafikoak, osatu egiten dute elkar, baina ez modu sistematikoan, inoiz idatzia eta irudia gainjartzen dira.	Informazio grafikoa eta idatzizko informazioa osagarriak dira, eta lengoia bakoitzaren ezaugarriak erabiltzen dira mezua eraginkortasunez emateko.
	Irudi eta/edo grafiko sintetiko eta arketipikoak erabiltzen ditu, irudikapen anekdotiko eta estereotipatuak saihestuz.	Internetetik edo beste nonbaitetik lortutako irudi txarrak erabiltzen ditu, eta editatu gabe sartuta daude, egilea nor den kontuan hartu gabe eta horrek daukan zeresana kontuan hartu gabe.	Ikasleek berek landu gabeko irudiak erabili dira, nahiz eta digitalki tratatu dituzten. Irudi horiek estereotipatuak dira eta anekdota erakusten dute.	Ikasleek diseinaturiko irudiak erabili dira, baina modu zehaztugabea aipatzen dute mezua.	Ikasleek irudi sintetikoak eta komunikazioan eraginkorrak diren irudiak diseinatzen eta/edo editatzen dituzte.
	Testuak antolatzean, tipo irakurgarriak erabiltzen ditu, tamainen araberako erabilera hierarkizatua, eta hitz larri/xeheen erabilera koherentea.	Eskuz idazten ditu testuak, edo letra tipo irakurtezinak erabiltzen ditu.	Tipografia alanbikatuak erabiltzen ditu, ez du tamaina garrantziaren arabera jartzen, irizpide jakinik gabe erabiltzen ditu hitz larriak eta xeheak.	Tipografiak irakurgarriak dira, baina testu blokeak ez daude garrantziaren arabera antolatuta.	Tipok mezuaren arabera egokitzen eta antolatzen dira.

6. ERREFERENTZIAKO BIBLIOGRAFIA

- Ferres i Prats, J. (1998). Televisión, Familia e imitación. *Comunicar*, 10, 33-39.
- Torres, E. y Gabantxo, M. (2007). *Familia, televisión e internet, ¿tenemos el enemigo en casa?. Pautas para el consumo seguro y crítico de las pantallas*. Departamento de Educación, Universidades e investigación del Gobierno Vasco, Fundación Euskaltel y EHIGE-Confederación de Asociaciones de Madres y Padres de la Escuela Pública Vasca.
- Medrano Samaniego, C., Palacios, S., Barandiaran, A. A. (2007). Los hábitos y preferencias televisivas en jóvenes y adolescentes: Un estudio realizado en el País Vasco. *Revista Latina de Comunicación Social*, 62. 1-15.

García Matilla, A. (2011). *Una televisión para la educación. La utopía posible*. Barcelona: Gedisa.